

LABek Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan arreta zuzeneko ordu jaitsieraren epaia irabazi du!

Gizarte ekimeneko patronalei dei egiten zaie epaia lehen bai lehen betetzeko

LAB Sindikatuak adierazten du EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoa eman diola: etapa guztietan arreta zuzeneko ordu jaitsiera aplikatu behar da eta ordu hori lan pertsonalerako 5. ordua bilakatuz.

Epaia dio neurri hau aplikatu beharrekoa zela ikasturte hasieratik, beraz, LABek Gizarte Ekimeneko patronalei eta ikastetxeei dei egiten die epaia lehen bai lehen bete dezaten. 2025eko irailetik irakasleek etapa guztietan sartu dituzten ordu gehigarri guztiak konpentsatuz

Bi urte betetzear daude 14 greba egunen ondoren Greba Amaierako Akordioa sinatu zenetik. Ordutik, patronalak harroputz jokatu du eta mahai negoziatzaileetan akordioa bera ez zuela beteko adierazi zuen, horrela jardun duelarik ikasturte hasieratik.

LAB Sindikatuak, egoera honen aurrean, STEILAS, CCOO eta UGT sindikatuekin elkarlanean eta batasun sindikala landuz ekintza sindikala aktibatzea besterik ez zuen izan. Mobilizazio ezberdinak burutu dira akordioa betetzeko aldarrikatuz, azkena epaiketa egunean, urtarrilaren 20an bertan.

Arreta zuzeneko ordu jaitsieraren auzian ekintza sindikalaz gain LABek bultzaturiko gatazka kolektiboari esker bide judizialean epaitegiak arrazoa eman dio, akordioan jaso zen lan-baldintzen hobekuntza halaber beharrez bete beharrekoa izanik. Honek berretsi egiten du egindako borrokaldi eta bide luzea, borrokak merezi du.

Ezin da ahaztu greba bukaerako akordioa sinatu zenetik hau dela LABek epaitegietara jotzen duen bigarren aldia, eta bai aurrekoan zein honetan aldeko epaia lortu da. Harroputz jokatzeko ari den patronalak akordioa bere horretan eta sindikatuok sinatu zuen bezala bete behar duela adierazi dio epaiak. Eta LABetik exijitu egiten diegu patronalei zein ikastetxeei ez errekurritzeko eta hau lehen bai lehen bete dezaten. Ez betetzea langileen eta ikastetxeetako hezkuntza proiektuen kalterako litzatekeelako bakarrik.

Bukatzeko, LABek berretsi egiten du tinko jarraituko duela arreta zuzeneko ordua murriztu eta lan pertsonalerako bilakatzen dela ikusi arte. Horretarako, orain arte bezala beharrezkoak izango diren pausoak emango ditu, bide juridikoa zein ekintza sindikala uztartuz, akordioan sinatutako eduki guztiak bete eta hitzarmenean jaso arte.